

IRAKASKUNTZA-GIDA

2022/23

Ikastegia

135 - Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzi

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GDEPOR10 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua

Ikastaroa

1. maila

IRAKASGAIA

25785 - Oinarrizko Gorputz Hezkuntza

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Norbanakoak inguratzen dion munduarekin erlazio osasuntsua, orekatua eta aberatsa izatea lortu nahi da, pertsonaren garapen integrala suspertzeko. Oinarrizko Gorputz Hezkuntzaren bitartez, gazteak objetuekin, espazioarekin, gorputzarekin eta beste pertsonekin dituen erlazioak segurtasunarekin, autonomiarekin eta arrazonamenduarekin bizitzen eta interpretatzen lortuko da. Oinarrizko Soin Hezkuntzak trebetasunak norberaren arabera lantzen lagunduko du arazo motorrei irtenbidea bilatzeko gaitasunak garatuz.

Irakasgai honetan, giza garapen motorraren teoriak, ereduak eta ezaugarriak aztertuko dira bizitzaren aro ezberdinetan, adin tarte bakoitzean zuzendutako jarduera fisikoaren aukeraketa egokia izan dadin.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Oinarrizko Gorputz Hezkuntzak gaitasun fisikoak, iaioitasun motorrak eta mugimendu ereduak ikasten ditu, eta baita hauen garapena haurdunalditik zahartzarora, eta bere ebaluaketa zein jarraipenerako erabiltzen diren baliabideak. Era honetan, ikaslea prestatzen da eduki hauek pertsonaren nortasunean duten inplikazioa eta hauek heziketa fisikoarekin duten lotura ulertzeko.

IKASGAIAREN GAITASUN ESPEZIFIKOAK:

Giza Motrizitatearen Portaera eta Gizarte Oinarriak MODULUA (G01)

G01-MG02. Jarduera fisikoa eta kirola egiteak pertsonengan duen eragina ezagutzea eta ulertzea, hezkuntzaren ikuspegitik eta ikuspegi psikosozialetik begiratuta.

G01-MG03. Giza motrizitatearen trebetasunen eta ereduaren oinarriak, egiturak eta funtzioak ezagutzea eta ulertzea. Erlazionatuta ANECAko G001, G005 eta G006-ekin.

- Ikaskuntza emaitzak (M01-MG02 eta M01-MG03): ikasleak giza motrizitatearen trebetasun eta eredu motorren oinarriak eta hacen garapena sakontasunean ezagutuko ditu, horien analisia eta ondorengo esku-hartzea gorputz hezkuntzaren ikuspegitik egiteko gai izango da (jarduera fisikoaren eta kirolaren bitartez), eta giza-talde anitzetan hezkuntza formal zein ez-formalean irakaskuntza aurrera eramateko gai izango da.

ZEHARKAKO GAITASUNAK

G019. Lidergorako, pertsonen arteko harremanetarako eta taldean lan egiteko trebetasunak garatzea.

- Ikaskuntza emaitzak: G019. Ikaslea lan- edo proiektu-talde bat lideratzeko gai izango da, zeinean komunikazio eta lidergo gaitasunak eskuratu dituela erakutsiko duen, zeharkako gaitasun honetan eskatzen den bezala.

G020. Egoera berrietara egokitzeko, arazoak konpontzeko eta modu autonomoan ikasteko gaitasunak garatzea.

- Ikaskuntza emaitzak: G020. Ebaluzio sistema jarraien berezko diren ikaskuntza prozesuarekiko egokitzapenak nola egin duen erakusteko gai izango da: edukien ikasketa, arduren onarpena, konpromezua, arazoaren ebazpena, lanaren kudeaketa.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

1. Garapen motorra, ikerketa arloaren deskribapena eta jatorria.
2. Giza garapen motorraren teoriak eta ereduak.
3. Garapen motorraren ikerketa deskribatzailea.
4. Garapen motorraren ezaugarriak etapa ezberdinen arabera: Gaitasun fisikoak, trebeziak eta motrizitatearen ereduak:
 - 4.1. Umetoki barneko epea.
 - 4.2. Hautzaroa.
 - 4.3. Nerabezaroa.
 - 4.4. Heldutasuna.
 - 4.5. Zahartzaroa.
5. Garapen motorraren eredu normalaren alterazioak.

METODOLOGIA

Irakasgaiaren edukiak era teoriko eta praktikoko batean landuko dira. Irakas-ikaste metodo ezberdinak eta eskuragarri dauden baliabide didaktiko ezberdinak erabiliko dira. Irakasgaiaren saioak saio magistraletan eta gelako praktikan

antolatuko dira:

- SAIO MAGISTRALAK (aurkezpen teorikoak, PPT eta bideoak ere erabiliko dira, bai taldeka zein bakarka).
- GELAKO PRAKTIKAK (gaitasun ezberdinak praktikoki garatzeko jarduerak).

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45	5	10						
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	45	23	22						

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 20
- Talde lanak (arazoan ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 40
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 40

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ikasleek bi ebaluaketa mota izango dituzte aukeran:

1 EBALUAZIO JARRAIA:

-Notaren %40:

Nota hau taldeka burutu beharreko lan bati dagokio. Lan honetan, ikasleek aldeztatik planteatutako helburuak lortzera bideratuta dauden ariketa fisiko eta jardura fisikoko hainbat saio garatu beharko dituzte. Lan honetan, irakasgaiaren eduki teoriko guztiak garatu eta agokituko dira talde bakoitzak aukeratzen duen kasu praktikoa zehatzera (populazio ezberdinen ezaugarriak saio teorikoetan ikasi eta azteruko dira).

-Notaren %20

Nota hau, bai ikasgelan eta bai ikasgelatik kanpo burututako praktika eta zereginen dagokio.

-Notaren %40

Nota hau, bai ikasgelan eta bai ikasgelatik kanpo burututako praktika eta zereginen aurkezpena, parte hartzea, garapena eta argumentazioari dagokio.

Ebaluazio jarraia irizpide hauek, irakasgaiaren hasieratik bukaerara ebaluazio mota honen baldintzak betetzen duen irakaslegoari aplikatuko zaizkio.

ETENGABEKO EBALUAZIOARI UKO EGITEA:

Ikasleek 9 asteko epea izango dute lauhileko irakasgaietarako, eta 18 astekoa urte osokoetarako, lauhilekoa edo ikasturtea hasten denetik aurrera, hurrenez hurren, ikastetxearen egutegi kademikoaren arabera.

Irakasgaiaren irakaskuntza-gidak epe luzeagoa ezarri ahal izango ditu.

Deialdiari uko egiten dioten ikasleek «aurkezteke» kalifikazioa jasoko dute.

Etengabeko ebaluazioaren kasuan ikasleak deialdiari uko egin ahal izango dio dagokion irakasgaiaren irakaskuntza-aldia amaitu baino hilabete lehenago, gutxienez. Uko egite hori idatziz aurkeztu beharko zaie irakasgaiaren ardura duten irakasleei.

2. BUKAERAKO EBALUAZIOA:

- Notaren %100:

Idatzizko azterketa bati dagokio.

DEIALDIARI UKO EGITEA.

- 1.-Azken ebaluazioaren kasuan, azterketen data ofizialean ezarritako probara aurkezten ez bada, automatikoki uko egingo zaio dagokion deialdiari.
2. Deialdiari uko egiten dioten ikasleek "aurkezteke" kalifikazioa jasoko dute.

PROTOKOLOA, UPV/EHUko EBALUAZIO PROBETAN ETA LAN AKADEMIKOETAN JOKABIDE MAKUR ETA IRUZURREZKOAK ERAGOZTEARI ETA ETIKA AKADEMIKOARI BURUZKOA: Ebaluazioa eta ikasketen ohiko printzipio etikoen urratzea eginez gero, kalifikazioa ZEROz izango da (0,0- SUSPENTSOA).

Ebaluazioa ez prezentziala egin beharko balitz, antolaketa-egokitzapenak egingo dira 2022-2023 Irakaskuntzarako Egokitzapen Planaren gomendioei jarraituz eta dagokien egutegi eta egitarauan.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

- Notaren %100:

Ohiko deialdian ebaluazio jarraia egitea aukeratu zuen ikaslekoa azken ebaluazio bat izango du.

Ebaluazio hau idatzizko azterketa bati dagokio.

Irakasgaiaren ebaluazioa ez-ohiko deialdian, bukaerako ebaluazio sistemaren bitartez soilik burutuko da. Hala ere, ikaslekoa ikasturtean zehar lortutako emaitza positiboak mantendu ahal izango dira.

DEIALDIARI UKO EGITEA

Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

PROTOKOLOA, UPV/EHUko EBALUAZIO PROBETAN ETA LAN AKADEMIKOETAN JOKABIDE MAKUR ETA IRUZURREZKOAK ERAGOZTEARI ETA ETIKA AKADEMIKOARI BURUZKOA: Ebaluazioa eta ikasketen ohiko printzipio etikoen urratzea eginez gero, kalifikazioa ZEROz izango da (0,0- SUSPENTSOA).

Ebaluazioa ez prezentziala egin beharko balitz, antolaketa-egokitzapenak egingo dira 2022-2023 Irakaskuntzarako Egokitzapen Planaren gomendioei jarraituz eta dagokien egutegi eta egitarauan.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

eGela plataforma erabiltzea ezinbestekoa izango da.

- SAIO PRAKTIKOAK: Kirol arropa egokia beharrezkoa da saioa baldintza egokietan burutu ahal izateko

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

Hemen agertzen den bibliografiaz gain, ikasleek gelan jasoko dituzten bestelako dokumentuak erabiltzeko aukera izango dute.

- Cratty, B. (1982). Desarrollo perceptual y motor en los niños. Barcelona: Paidós.
- Gessell, A.; y Ames, L.B. (1981b). El niño de 5 a 10 años. Buenos Aires: Paidós.
- Gomendio, M. (2000). Educación Física para la Integración de niños con Necesidades Educativas Especiales. Madrid: Gymnos.
- Guilmain, E. y G. (1981). Evolución psicomotriz desde el nacimiento hasta los 12 años. Barcelona: Editorial Médica y Técnica.
- Leboulch, J. (1983). El desarrollo motor desde el nacimiento a los 6 años. Madrid: Editorial Doñate.
- Levi, S. (1969). Problemas de desarrollo. Barcelona: Grijalbo.
- Oña Sicilia, A. (1987). Desarrollo y motricidad: fundamentos evolutivos de la educación física. Granada: INEF de Granada.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Pikler, E. (1985). Moverse en libertad. Desarrollo de la motricidad global. Madrid: Narcea, S.A. Ediciones.
- Roca, J. (1983). Desarrollo motor y psicología. Barcelona: INEF.
- Ruiz Pérez, L.M. (1987). Desarrollo motor y actividades físicas. Madrid: Gymnos.
- Watson, E.H, y Lowrey, G. G. (1977). Crecimiento y desarrollo del niño. México: Trillas.

Aldizkariak

- Motricidad. European Journal of Human Movement.
<http://revistamotricidad.es/openjs/index.php?journal=motricidad&page=index>
- Motricidad. Revista de ciencias de la actividad física y del deporte. <http://dialnet.unirioja.es/servlet/revista?codigo=9549>
- Revista Motricidad Humana. <http://www.revistamotricidad.com/>

Interneteko helbide interesgarriak

- <http://www.efydep.com.ar/enlaces.htm>
- <http://www.revue-eps.com/fr/>
- <http://www.aula21.net/primera/portaleseducativos.htm>
- <http://www.aehesis.de/aehstart.asp>
- <http://www.cienciadeporte.com/>
- <http://inico.usal.es/integra.asp>
- <http://debegesa.com/se-han-presentado-las-nuevas-fichas-de-kirola-euskaraz/>
- http://ec.europa.eu/education/lifelong-learning-programme/doc78_en.htm
- http://www.slideshare.net/FdelValleA_IrazustaS

OHARRAK